

GURATRANS PROIEKTUA

Europako proiektu bat uraren eta ibaien kudeaketa hobetzeko

GURATRANS Europako proiektu bat da: *“Pirinioetako mendebaldeko muturreko mugaz gaindiko ibaien kudeaketa integral eta parte-hartzailea”*. Proiektuan Nafarroako Gobernuak ari da Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin (CRANA) batera. Proiektuak Nafarroan Araxes, Bidasoa, Leizaran, Urdazuri eta Urumea ibaien esparruetan jardun du.

GURATRANS proiektuaren helburua izan da mugaz gaindiko eta eskualdez gaindiko kudeaketa-egiturak osatzea, uraren eta ibaien kudeaketa eskudunak diren entitateen arteko koordinazioa hobetze aldera eta baliabide hidrikoak hobeki kontrolatze aldera. Proiektuaren lan-taldean HAZI Fundazioa da lanerako buru, hots, Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundea, eta bazkide kolaboratzaile batzuk ere badira, hala nola Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa (CRANA) eta Hego Lapurdiko Hirigunea. Proiektua batera finantzatu dute Nafarroako Gobernuko Uraren Zerbitzuak, Uraren Euskal Agentziak (URA), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aturri-Garona Ur Agentziak. Bestalde, Akitaniako Eskualde Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak ekimena sustatu dute. Guratrans Espainia, Frantzia eta Andorra biltzen dituen Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Programa Eragilean sartuta dago (POCTEFA 2007-2013) eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren diruak jaso ditu.

GURATRANS proiektuak Nafarroako Uraren Foroan sortutako eskariei erantzun die. Foroa Nafarroako Gobernuak bultzatu zuen 2006an barrena 2009ra bitarte, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin (CRANA) koordinaturik, herritarren parte-hartze prozesua bideratzeko, Urari buruzko Esparru Zuzentaraua ezartze aldera.

Bidasoaren Uraren Foroan parte hartu zuten hainbat eragile ekonomikorik eta sozialek, eta administrazio publikoetako ordezkariak, egindako diagnosian honako arazo nagusiak atzeman zituzten: “Ur hornidura ez dago bermatua herri batzuetan, urte sasoi jakin batzuetan”; “Ur faktorea ez da aintzat hartzen hirigintza-plangintzan”; “Industriako, nekazaritza-abeltzaintzako eta hiri isuriek eragindako kutsadura”; “Ibaiertzen eta ekosistemaren egoera txarra”; “Ibaien emaririk ezak arrantzan ondorio kaltegarriak ditu”.

GURATRANS-ez gain, eskualdez gaineko beste bi proiektu europar garatu dira Bidasoan (BIDUR eta Ibai Lurraldeak), eta biak ere lagungarriak izan dira uraren eta ibaien kudeaketa hobetzeko.

BIDUR Europako Proiektuak besteak beste balio izan du Bidasoaren eta Urumearen arroetako lurpeko baliabide hidrikoak ebaluatzeko; horretarako, akuiferoen ezaugarritze geologikoa eta hidrogeologikoa egin da, erabilerak eta eskariak aztertu dira, eta azpiegituren egoera ebaluatu da. Horrez gain, 12



zundaketa egin dira, akuiferoetako baliabideak identifikatzeko, eta baliabide horiek herriak urez hornitzeko ustiatu daitezkeen edo ez baloratzeko. Informazio horri esker, Berako eta Lesakako hornidura hobetu da, baterako hornidurarako konponbide baten bitartez.

Europako Ibai Lurraldeak izeneko proiektuan, aurrerapausoak eman dira ibai esparruak iraunkortasunez kudeatzeko, uholdeek eragindako kalteei aurrea hartze aldera eta,aldi berean, ibaiaren kalitatea eta biodibertsitatea hobetze aldera.

Azken urteotan, Nafarroako Gobernuak, azpiegitura planaren bidez, herri batzuetako ur hornidura hobetu du, bai eta saneamendu azpiegiturak ere.

Nafarroan garaturiko GURATRANS proiektua

GURATRANS garatu bitartean, hainbat ekintza egin dira ura eraginkortasunez kontsumitzeko eta kontsumoa murrizteko, bazterrak gutxiago kutsatzeko (eskariaren eta uren kalitatearen kudeaketa), eta gure ibaiak hobetzeko (ibai lurraldea kudeatzeko proposamenak).

Horretarako, hainbat azterlan tekniko egin dira: ur eskaria kudeatzeko eta tarifatzeari buruzko azterlan bat Lesakan eta Beran; diagnostia eta ura hobeki erabiltzeko azterlanak ekoauditorien bidez Lesaka, Doneztebe eta Elizondoko hainbat eraikin publikotan; eta Baztan ibaira ura isurtzen duten hainbat erreka gaineko azterlan bat. Eragileen ekarpenak biltze aldera, parte-hartze publikorako prozesu bat egin da, eta jarraipen batzordeak osatu dira.

Lan horien ondorioz, hobekuntza eta kontserbazio arloko jarduketa proposamenak lortu, eta konpromiso zehatzak sustatu dira.

Ekintza horien bitartez helburu nagusi batzuetarantz ari gara aurrerapausoak ematen. Honatx helburu nagusiak: ziklo hidrológicoan esku hartzen duten elementu eta faktore guztiak txertatzea eta era berean, ingurumeneko hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatzea, gizartea ekosistemak kontserbatu eta leheneratzeko planteamenduan engaiatze aldera, betiere Urari buruzko Esparru Zuzentzailearen planteamenduekin bat.

Jarduketa-ildoan artean, prozesu parte-hartzaileak aurreikusten dira, eragile interesatuei lekua emateko eta arazoei buruzko eztabaida eragiteko, eta eztabaidaren bidez, arazoak konpontzen laguntzeko. Prozesuek esparruak sortzen dituzte, kudeaketa partekatu eta arduratsuan aurrera jotzeko, Urari buruzko Esparru Zuzentzailearen planteamenduekin bat eta Uraren Kultura Berriaren printzipioekin bat;

eta era berean, prozesuek ingurumeneko sentsibilizazioa sustatzen dute ibai ekosistemen kontserbazioaz eta leheneratzeaz.

Nafarroan, hain zuzen, Baztan, Bera, Lesaka eta Donezteben egin da eragin handiagoko lana, azterlanak eta esperientziak egin baitira.

Parte-hartze prozesua irekia egon da proiektuaren esparruan uraren kudeaketan engaiaturik eta interesaturik zeudenentzat, eta eragin handiagoa izan du Bidasoaren azpiarroan. Halaber, herritarrentzat oro har egon da irekia. Beraz: toki entitateak (udalerriak, kontzejuak, herriak, mankomunitateak), erabiltzaileak, udaletako langileak eta teknikariak, enpresak eta enpresa-elkarteak, nekazaritza sindikatuak, garapen agentziak eta turismo partzuergoak, herritar elkarteak (ekologistak, auzokideak, emakumeak, gazteria, boluntarioak...), kirol eta aisia elkarteak, ikastetxeak, guraso elkarteak, pertsona partikularrak izan dira prozesu-kide.

Parte-hartze mailak edo moduak alde inplikatuaren interesetara egokitu dira. Informazio hutserako mailetatik parte-hartze aktiboraino:

- Komunikabideen bidez, informazioa oro har gizarteari ematea, aztertu beharreko gaiez eta lorturiko aurrerapenez.
- Informazio-jardunaldian parte hartzea
- Parte-hartze aktiboa tokiko talde txikietan, diagnosis eta sortutako proposamenak finkatzeko.
Zehazki:
 - o Lantegiak, ikuspuntu eta interes guztien adostasuna eta integrazioa baloratu eta lortzeko, honako arlo hauei buruz egindako lan teknikoaren gainean:
 - Ekoauditoreak Lesaka, Elizondo eta Doneztebeko instalazio publikoetan.
 - Ibai esparrua Baztan ibaiaren erretetan leheneratzeko azterlana.
 - o Parte-hartzea proiektuaren Tokiko Jarraipen Batzordeetan. Holako batzordeak Lesaka, Bera, Baztan eta Donezteben osatu dira, eta kide izan dira kasu kasuko udaleko hautetsiak, Nafarroako Gobernuaren Zerbitzua eta Tokiko Azpiegituren Zerbitzua, Cederna-Garalur eta CRANA. Honakoak landu dituzte: konpromisoak ekoauditoretan instalazio publikoetan, ibai esparruaren leheneratzeko lanetan, eta eskariaren kudeaketan nahiz tarifaztean bai Beran bai Lesakan.
 - o Parte-hartzea Emaitzak Transferitzeko Taldearen saioetan. Kide izan dira Udaletako eta Mankomunitateetako politikariak eta teknikariak, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

NAFARROAN EGINDAKO LANAREN DATU BATZUK

Eskaria kudeatzeko eta tarifatzeari buruzko azterlana Berako eta Lesakako udalerrietarako egin da.

Uraren ekoauditoreak herri eta tokiotan egin dira:

EKOAUDITORIAK	
Toki Entitatea	Instalazioak edo eraikinak
Lesaka	Kirol instalazioak Futbol zelaia Jubilatuena elkartea Lehen Hezkuntzako eskola Biltegia eta suhiltzaileen lokala Xorroxin irratia
Doneztebe	Eskola kontzentrazioa Frontoia eta udako igerilekuak Kiroldegia Apartamentu tutelatuak Haur Eskola
Baztan	Kirol instalazioak Bainu publikoak Francisco José Iriarte zahar etxea Futbol zelaia Baztan Ikastola Eskola kontzentrazioa

Ibai esparruaren gaineko diagnosiari eta leheneratzeko izan diren proposamenei dagokienez, Baztan ibaira doazen hainbat erreka aztertu dira: Aranea, Kordoba, Izpegi, Arla, Aintzialde, Iñarbegi, Urdanazpi, Askoa, Ariztegi eta Beartzun

Datu-base batekin lan egin da, berriaz egindakoa, eta 90 bat erakunde eta entitatetako 300etik gora pertsonari buruzkoa.

100 lagunek baino gehiagok parte hartu dute era aktiboan talde, batzorde eta jardunaldien bitartez.

Hainbat dokumentu prestatu dira, prozesu parte-hartzailearen oinarri izateko. Dokumentu batean diagnosis eta Berako nahiz Lesakako eskaria kudeatzeko ekintza plana bildu dira; hiru dokumentutan hurrenez hurren bildu dira Lesaka, Doneztebe eta Baztango ekoauditoreak; dokumentu batean diagnosis eta errekek hobetzeko ekintza plana bildu dira, eta bukatzeko, dibulgaziozko 6 dokumentu egin dira lantegi parte-hartzaileetan erabiltzeko.

EMAITZAK

Eskaria Kudeatzeko Azterlana

Bera eta Lesakako eskaria kudeatzeko azterlanean ikusi da gauza batzuk nabarmen hobetu daitezkeela: esate baterako, hornidura, uraren kalitatea, sareen presio estatikoa, hornidura-uraren kontrola, kudeaketa eta tarifen egitura.

Eskaria kudeatzeko ekintza Planean hainbat hobekuntza ekintza proposatu dira. Hona hemen:

- √ Ihes aunitzeko sare zaharrak berritzea
- √ Banako kontagailuak jartzea
- √ Hornidura sarean ihesak atzematea
- √ Sareko presioen optimizazioa eta doikuntza
- √ Ur beltzak iragazgaiztea, eta ur batzuk eta besteak bereizteko sareak bikoiztea
- √ Iturri publikoetan sakagailuak paratzea
- √ Ura eraginkortasunez erabiltzeko araudia: udal ordenantza
- √ Hartuneak eta kontagailuak berrikusteko kanpaina
- √ Kontsumoak eta sarearen eraginkortasuna kontrolatzeko programa
- √ Sarearen inbentario digitala
- √ Bide publikoan obren gauzapena kontrolatzeko protokoloa
- √ Igerilekuen zerrenda egitea
- √ Lan talde bat sortzea kudeaketan aurrezpena sortzeko
- √ Idorteetan jarduteko protokoloa
- √ Eskaria Kudeatzeko Planari buruzko komunikazio kanpaina
- √ Komunikazio kanpaina: ura aurrezteko teknikak erabiltzaile ez espezializatuen artean zabaltzea
- √ Komunikazio kanpaina: aurrezpen teknikei buruzko erakustaldi praktikoa eta zuzeneko
- √ Jardunbide egokien katalogo bat prestatzea
- √ Tarifen egitura eta uraren prezioak aldatzea
- √ Uraren fakturaren formatua aldatzea
- √ Udal instalazioetan ur ekoauditoreak egitea
- √ Kontsumitzaile handietan ur ekoauditoreak egitea
- √ Ura txorrotetan aurrezteko gailuak banatzea
- √ Diru-laguntza ematea, sakagailu bakarreko zisternak aldatzeko

Ur ekoauditoreak

Ur ekoauditoreak egin diren **eraikin eta instalazioetan**, ikusi da badela zer hobetu honako arloetan:

- Instalazioen egoerari dagokionez: instalazio askok ez dute ur kontagailurik, presio estatikoa zertxobait altua da, txorrotak ez daude tenporizatuta, eta ez dago aireatzailerik konketetarako, zisterna baxuko komunak deskarga soilekoak dira. Dutxek ez dute nahasgailurik.



- Honatx gehien atzeman diren arazoak: ur kontsumo handia, ez dago kontagailu orokorrik ur kontsumoa kontrolatzeko, txorrotek eta aparatu sanitarioek ez dute ura aurrezteko gailurik.
- Mantentze orokorrari dagokionez, iturgintza instalazioa oro har ongi mantenduta dago.
- Erabilerari dagokionez: erabiltzaileak oro har gutxi kontzientziatuta daude ura aurreztu beharraz.
- Kontsumoak ia ez dira kontrolatzen, ez baitago kontagailu orokorrik eta ez dago erregistrorik.

Hona hemen **hobekuntza proposamenak** azaletik: ur kontagailuak paratzea; igerilekuetako ur galerak konpontzea; ura aurrezteko gailuak txorrotetan eta aparatu sanitarioetan jartzea; dutxetan aginte tenporizatuak paratzea; presioa murrizteko balbulak jartzea, eta erabiltzaileak ura aurreztu beharraz kontzientziatzeko kanpaina egitea.

Ibai esparrua leheneratzeko azterlana

Ibai esparrua leheneratzeko azterlanari esker ikusi da **erreka aztertuek sekulako dibertsitate biologikoa dutela** eta eginkizun garrantzitsua betetzen dutela korridore biologiko gisara; izan ere, haien berezko dinamikak (higadura, garraioa eta sedimentazioa) askotariko inguruneak eta mikrohabitata sortzen ditu, guztiak ere beharrezkoak flora eta fauna espezieak babestu, ugaltu eta barreiatzeko, bai eta elikagaiak aurkitzeko ere. Errekek, gainera, ingurumeneko konektibotasuna ahalbidetzen dute goi-ibarreko eremuen (gehienetan Habitategi buruzko Zuzentarauan sarturiko intereseko habitata daude), erreken beraien ibilguaren (zenbaitetan, ibilgu hori lehentasunezko habitata da) eta Baztan ibaiaren ibilguaren artean, barne delarik Baztan Ibaia eta Artesiagako erreka izeneko Batasunaren Intereseko Lekua edo BIL.

Baztan ibaiaren goi-ibarreko erreketan honelako **arazoak atzeman dira**: aldaketa geomorfologikoak, emari-erregimenaren aldaketak, uraren kalitatea aldatu izana, ibaiertzeko landaretza aldatu izana, faunari dagozkion arazoak, ingurune fisikoa aldatu izana (zaborrak, hesiak, azpiegiturak...) eta Ur Jabari Publikoan aldaketak gertatu izana, oso garrantzitsua korridore ekologiko gisara duen eginkizunagatik..

Hona hemen **hobekuntza proposamenak**, parte-hartze tailerrean oinarrituta. Bestek beste:

- ✓ Ibilguak hobetzea, honako lanak bultzatuz: gaur egun lubetak eta hormak dituzten tartek leheneratzea, lubeta eta hormek ibaiertzeko korridorearen uhaldi-fluxuak murriztu eta aldatzen dituztelako; ibaiertzak egonkortzea, bioingeniaritza eta landareztatze teknikak erabiliz.
- ✓ Uraren kalitatea hobetzea, beste gune batzuk aztertuz, eta kutsadura lausoa eta unean uneko isuriak kontrolatuz. Laguntzak/sustapena barreiatzeko etxebizitzetan hobi septikoak paratzeko.

- √ Ibaiertzak hobetzea. Erreken ertzetan landaretza birsortu dadila sustatzea. Eremu pilotu bat bilatzea, erakustaldi gisara erabiltzeko. Itxi diren edo erabiltzen ez diren isurtegiak kontrolatu eta haien jarraipena egitea. Tamaina handiko isuriak, plastikoak eta bestelako zabor begetal eta nekazaritza-abeltzaintzakoak ibaiertzetatik kentzea. Laguntzak, ibaiertzeko lurretan espezie egokiak landatzeko.
- √ Emari erregimena hobetzea. Erreken jarraipena egitea eta errekek buxatzea sustatzen duten elementuak ezabatzea.
- √ Fauna babestea: zuhaitz helduak ongi kudeatzea faunaren aterpea hobetzeko. Presa txikiak ezabatzea eta erabiltzen ez diren alanbradak kentzea.
- √ Herritarrendako informazioa sustatzea eta, halaber, haien kontzientziazioa eta parte-hartzea sustatzea, erreken hobekuntzan ari daitezten.
- √ Erabilerei buruzko jardunbide egokien eskuliburuak prestatu eta zabaltzea: nekazaritza-abeltzaintza, kirola (piraguismoa, arrantza, etab.) eta ludikoa. Enborrak kentzeko protokoloa hedatzea, ibilgua buxatzen dutenean edo ur isuriarendako oztopo direnean. Abeltzainak sentsibilizatzeko kanpainak egitea mindek eragindako kutsadurak faunan eta floran sortzen dituen kalteez, bai eta ongarri, herbizida eta kaltegarriak ez diren beste produktu batzuei buruz.
- √ Eskolek bultzaturiko programa, ibaia eta ibaiertzak garbitu beharraz txikitandik kontzientziatzeko. Boluntarioritza-jarduerak edo auzolanak sustatzea ibaietako zaborrak kentzeko. Errekek sustatzeko programak bultzatzea, hiri biztanleriak haien natur eta paisaia balioak ezagut ditzan sustatze aldera, eta gizarteak balio horiek gehiago baloratu ditzan.
- √ Hirigintza Planeamendua erabiltzea, aurreko neurriak sustatzeko, eta halaber, prestatzen diren planetan emariak mantentzea eta erreken jarraitasuna kontuan har daitezela begiratzeko. Bidezidorren sare bat proposatzea, egungo bidezidorretan oinarrituta, ibai ondareko elementuak dituzten eremuak elkarren artean lotzeko, bai eta Elizondon eginen den ibai parkearekin ere.
- √ Bestelako neurriak: hiri solidoak, tamaina handikoak eta obra-hondarrak biltzeko zerbitzuak hobetzea, jendeak toki egoki batera eraman ditzan sustatzeko, eta ibaira ez botatzeko. Baztango “Ur batzordea” sortzea eta ura nahiz ibaiak kudeatzeko eredu berri bat denen artean Baztanerako definitzea. Ura aurrezteko, eraginkortasunez erabili eta kontsumitzeko eta ibaiak nahiz errekek kudeatzeko plan integrala.

GURATRANS proiektuan hainbat baliabide erabili dira, hala nola “Emakumeak busti egiten dira” izeneko egitasmoa. Hain zuzen, egitasmo horren metodologiari jarraikiz, ibaiei eta urari lotutako lan bat egin da Malerrekako, Bortzirietako eta Leitzako emakumeekin; eta bukatzeko, Bidasoari buruzko egutegi bat egin da, eta beste bat Leitzaran eta Urumeari buruz. Gainera, boluntarioritza Baztan, Leitzaran eta Urumea ibaietan sustatzea lantzen ari da, eta gazteak sentsibilizatzeko jarduerak Malerrekan. Halaber, ibai jarraitasuna leheneratze aldera eta Bidasoa ibaian arrain migrazioak sustatze aldera, aztertu da



Berako Zentral Hidroelektriko zaharreko presa ezabatzea (jabea Iberdrola da), hori guztia ingurumeneko bitartekaritza prozesu batekin batera.

HARTU DIREN KONPROMISOAK

GURATRANS proiektuan Nafarroan parte hartu duten erakunde, entitate eta elkarteek hainbat konpromiso hartu dituzte uraren eta ibaien kudeaketa hobetzeko. Konpromisoak beheko taulan ageri dira eta itzulerako bileretan aurkeztuko dira udalerrri bakoitzean:

	EGUNA-ORDUA	NON
Berako itzulera bilera	2014-11-17 – 18:00	BERALANDETA, Eztegara pasealekua 13. Bera
Lesakako itzulera bilera	2014-11-21 – 18:00	
Doneztebeko itzulera bilera	/2014/11-xx – 18:00	
Baztango itzulera bilera	2014-11-26 – 18:00	ARIZKUNENEA KULTUR ETXEA. Jaime Urrutia karrika 14. Elizondo

ARGIBIDEAK

Harremanetarako pertsona

Telefonoa

E-posta helbidea



GURATRANS EUOPAR PROIEKTUA

Pirinioetako mendebaldeko muturreko mugaz gaindiko ibaien kudeaketa integral eta parte-hartzailea

EFA221/11-GURATRANS

www.guratrans.eu

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilea
2007-2013 POCTEFA